

Eslovenia: gailurretatik, lurrazpitik eta zerutik

Muskilda Tellabide

■ Triglaveko ipar horma: 1000 metrorainoko desnibela eta 3 km-ko zabalera



LPEEK, mendi Dinarikoek eta Mediterraneoak bat egiten duten lekuan, topo egiten dute hegoaldeko beroak eta iparraldeko haize hotzek, kostaldeko usainek eta izei alpien erretxinaren lurrinek, lurra kobazulo eta sima ugarik zartatua dago, errekek mendien erraietatik jaio eta berriro mendien azpian desagertzen dira. Itzelezko basoak eta mendi basatiak daude, zelai berdeak eta harri biluzizko eremuak txandakatzen dira, eta dena bizitzaz beteta dago...

Hemen gobernatzen du antzinako jainko eslovenoak, Triglavetik ("tri"=hiru eta "glava"=burua), bere hiru buruekin: lehenengoarekin zerura begiratzen du, bigarrenarekin lur eta mendietara, eta hirugarrenarekin lurrazpira. Ikusten duena erakutsi digu berak.

1 ZERUTIK: Jainkoari gauza ederren zakua hautsi zitzaionekoa

"Mundua egiten aritu zen egunetan, Jainkoak zaku batean zeramatzen gauza eder guztiak... zakua hautsi egin zitzaion ordea, eta barruan zeuden gauza guztiak leku berean erori ziren, denak pilotuta."

Alpeen ekialdeko muturreko apenas bi miloi biztanleko estatu txikia da Eslovenia. 20.256 km²ko hedaduran, basoek horietako 10.124 estaltzen dituzte, ia erdia. Herrialde euritsua da, eta Bora haizeak, iparraldeko haize gogor ezagunak, ingurune irekietan kamioiak iraultzen dituela esaten da. Tristeko golkoan itsasoratzen den Soča ibaia izan ezik, gainerako ibaien urak Danubiora eta azkenik Itsaso Beltzera doaz. Kostalde mediterranean zati txikitik (40 km bakarrik) barrualdera, Kras (edo Carso) izeneko lurralde bitxian sartuko gara, natura gizakiaren oraindik harridura sortzeko gai den lurraldea. Leku hau da karst edo karstiko terminoen jatorria. Muinoz osatutako ingurune honetan, ibaiak lurrazalera irten eta lurpera sartu ibiltzen dira; lurpea, makina bat haitzulo, leize eta



hutsunez eratu dago; aintzirak agertu eta desagertu egiten dira... natura kapritxosoa da. Hemen daude Postojna bezalako koba ospetsuak, fantasiako mundu petrifikatuak. Baina hori guztia lurpeko munduaren erreinua da, eta beraz, Triglaven hirugarren buruak zaintzen du. Hori ere erakutsiko digu. Baina geroxeago.

Drava ibaitik eta Maribortik ipar-ekialdera, lurra lautada bihurtzen hasten da Hungariaren mugaraino. Alpeek Esloveniaren iparraldean hartzen dute, Sava ibaiaren haranak banatzen ditu Austriaren muga den Karawanke mendilerro luzea eta Juliotar Alpeak, Triglaven gailurrean 2864 metroraino goratzen direnak. Sinbolo nazionala den hau (bandera eslovenoan Triglaven irudia ageri da) eta inguruko baso ederrak, aintzirak eta jatorri glaziarreko bailarak 1981ean geratu ziren babestutako Parke Nazional gisa. Alpeen oinetan eta Sava ibaiaren inguruan garatu dira Esloveniako lurrik aberatsenak, nekazaritza eta fruta-arbolen lanketari eta basoen esplotazioari esker. Hala ere, lurraren aprobetxamendurako edozein iharduera edo mugimendu egin nahi duenak, lege zorro-



Triglav. Gailurrera iristen, jende pilarekin batera

■ Prag bidetik Triglavski Dom-era igotzen. Prag bide normala da, jende gehienak erabiltzen duena, baina hego isurialdetik bada beste bide errazago bat (Planika aterpetik)

tzak errespetatu behar ditu. Ehiza eta arrantzarako kontrol zorrotza dago; desforestazioa urtero % 0 da; urbanizaziorako eta etxeen eraiketarako kontu handiz diseinatutako irizpideak daude. Zorrozki zaintzen da metro karratu bakoitza.

Eslovenia euskaldunok baino biztanle gutxiagoko estatu gaztea da, eta Europa osoaren antzeko bizitza maila du. Ez dago analfabetismoa. Hamalau ikasle bakoitzeko, irakasle bat dago. Ljubljana da hiriburu, erromatarren garaiko Emona. Hiriburu europar bat gehiago bezalakoa da, bere eliza, arte-galeria, museo eta ukitu liriko horrekin, garbia, dena azken txokoraino zaindua, baina txikiagoa (340.000 biztanle). Diotenez, kanpotarrari zaila egiten omen zaio bertako ehundaka eliza eta monastegien kanpai-hots ugarietara ohitzea.

Kantatzen duen herria da: 2.000 abesbatza daude erregistraturik; ez dago bere korua ez daukan herririk. Diotenez, ikusle gehiago izaten da musika kontzertuetan futbol partiduetan baino... Eslovenia oso garatutako espazio kulturala da, eta horrek lagundu zuen mendeetan zehar, nazio identitatea eratzen. Literaturak garrantzi handia izan zuen horretan. 1552an argitaratu zen eslovenoz idatzitako lehen liburua. Gaur eslovenoa da hizkuntza ofiziala estatu osoan, eta Karintian (Austriako mugako lurraldea) eta Triesten ere hitz egiten da. Hizkuntza eslaviarra da; eslaviarrak dira errusiarrak, bielorrusiarrak, kroaziarrak, ukrainiarrak, poloniarrak, txekiarrak, esloveniarrak, serbiarrak, bosniarrak, bulgariarrak. Europako hizkuntza-familia handiena osatzen dute. Gurera eslovenotik eta serbokroatatik zenbait hitz maileguan hartu ditugu, zenbait formazio karstiko izendatzeko: *dolina* (eslovenoz "bailara", "harana") eta *polje* ("zelaia").

Esloveniako eslaviarrak VI. mendean kokatu ziren Sava, Drava eta Mura ibaien haranetan, Friuliraino eta itsasoraino iritsiz. Mende bat beranduago Karintiako dukerri eslaviarrek elkartu ziren. Orain urte gutxi arte, esloveniarrak ez zuten inoiz estatu propiorik osatu, eta inguruko beste herrien inbasioak, bata bestearen atzetik, izan zituzten. Luzeena Austriaren kolonizazio germaniarra izan zen: XIII. mendetik 1. Mundu Gerraren amaieraraino, 1918an, Esloveniako Habsburgeko Etxearen menpe igaro zuten mende luzeak. Tartean, otomanoen erasoak eta Napoleonen garaian Frantziaren administrazioa ezagutu zituzten. Herri esloveniarraren identitate kulturala intelektualen (gehienak erlijioso katolikoak ziren) heziketa-lanari esker gorde zen. XIX. mendearen hasieran hasi zen jaiotzen nazio-kontzientzia eta Austriaren uztaipetik libratzeko nahia, hegoaldeko beste eslaviarren eraginak lagunduta.

1. Mundu Gerra amaitsu eta inperio austrohungarora erorita, kroaziarrak, serbiarrak eta esloveniarrak erresuma sortu zen, eta Jugoslavia


("hegoaldeko eslaviarren lurraldea") izena hartu zuen. Estatu berriak ezin izan zituen esloveniarrak guztiak elkartu: Klagenfurteko eskualdea (Karintia) Austriari eman behar izan zioten; Juliotar Alpeen zati bat, mendebaldeko Kras eta Istria, berriz, Italiari. Banaketa 2. Mundu Gerran heldu zen berriro, baina 1945ean, nazien porrotaren ostean, Esloveniako errepublika gaur egun dituen mugekin Jugoslaviako errepublika federalaren barnean eratu zen, legegintza eta gobernu erakunde propioekin, ondorengo urteetan Italiak kendutako lurralde batzuk berreskuratu eta gero. Josip Broz Titoren gobernu federalaren pean, Eslovenia sei errepubliken artean industrializatuena eta aberatsena izan da. 1990ean erreferendumez independentziaren alde agertu ziren esloveniarrak. Jugoslaviako armada federalaren eraso motz baten ondoren, 1991-92an gauzatu zen Esloveniako errepublika independente berria.

2 GAILURRETATIK: Kareharri biluzizko menditzarrak

Alpeen ekialdeko azken muturreraino joatea erabaki genuen, ea zer zegoen han... eta kareharriko mendi ederrak aurkitu genituen, paretak ikusgarriak, hartzen eta basantz adar handien bizilekuak, jende atsegina, eta askoz ere gauza gehiago.

Juliotar Alpeetara heldu ginenean ez genekien gauza handirik mendi haiez. Tarvisiotik muga pasa genuenean etxetox zipristindutako herrialde berde dizdiratsu batean sartu ginen karaitzeko paretak errepidetik ikusten genituela. Ondo zaindutako parajeak ziruditen: errepidean igelak eta apoak ez zapaltzeko zioen trafikoseinalea, ez moztu lore eta landareak, ez hartu karakolik. Jende mordoa zebilen mendian, gehienak bertakoak, eta txekiarrak, hungariarrak, kroaziarrak, okzidental gutxi; eta giro polita, mendizaleak kantari, edo armonika jotzen mendi-aterpeetan... Eta horrek gogora ekarri zidan etxetik urrun geundela. Mendiak bertako jendeek egiten baitituzte bereziak. Mendiak, leku guztietan, mendiak besterik ez direlako, harria, elurra, belarra, zuhaitzak, marmotak edo beleak besterik ez; baina jendeak desberdinak dira. Eslovenoen mendizale onak izatearen fama dute: merezia, ikusi genuenez; eta gainera material supermodernorik eduki gabe eta puntako teknologiazko kolorinezko arroparik gabe. Mendi kirol nazionala dela esaten da. Ideia bat egiteko, 80.000 federatu daude.

Iritsi bezain laster ikusi genuen hiru buruen jauna aurrez aurre, bere ipar paretak ikusgarriak erakutsiz. Eta instantean, elkarri begiratu bakarrik, ulertu genuen gauza bera pentsatzen ari ginela: "horra nondik arraio igotzen duk?". 1778an izan zuen lehen igoera. Willonitzer, Roszih, Kos eta Koroschetz mendiaren hegoaldean heldu ziren, "hogeita hamar bat pertsona batera" sartzen ziren ton-



■ Triglavski Dom (2515 m).
Atzean, gailurra



Goiz hartan, sei t'erdia pasata, abiatu ginen hiru buruen bila. Jende asko genuen aurretik, baita atzetik ere. Basoaren amaieran, 2. mundu gerrako partisoen omenezko monumentu bitxi bat topatu genuen: harri handi baten gainean, eskaladako iltze eta mosketoi erraldoia. Hortik aurrera, mendi honetan hildako pertsonen omenezko plaka ugari "animatu" ziguten bidea. Berehala ia bertikala bihurtu zen, burni eta kableen bidez eskaloia ugari gaindituz. Hiru ordu t'erdian Triglavski Domera iritsi ginen, hiru buruko harrizko jaunaren oinean. Aterpea lau solairuko eraikuntza itzela zen, aldamenean, Alpeetako toki batzuetan ohikoa den bezala, kapera txiki batekin. Barruan, "errezepzioa" zioen letrero luminoso bat eta uniformeaz jantzitako garbitzaileak lanean.

Jende mordera zegoen aterpearen terrazan azken txanparako indarrak berritzen... "konturatu al haiz? Hemen guk bakarrik edaten diagu ura" esan zenidan, eta inguruko mendizaleak beren garagardoak eta petakak ateratzen eta latak sardinak jaten begiratu genituen. Halako batean, pentsamenduak izaten dituen halako flash batean, mendira barrira energetiko aspergarri horiek bezalako txolinkeria gehiago ez eramatea bururatu zitzaidan, eta ume garaietako patata-tortila bokadiloa eta txorizo muturra etorri zitzaizkidan burura. Sabela pittin bat engainatu ondoren, azken erasorako presatu ginen, gure kasko, mosketoi eta gainerako trasteekin armatuta. Esloveniarrak ez zeramaten ez kasko, ez arnes, ez ezer, harkaitzean gora igotzen ziren Ljubljankako kaleetan balebiltza bezala, neskak, mutilak, haurrak, agureak... berrikerian ari ziren bitartean. Hobe ez behera begiratu: ez zen ikusten paretak non amaitzen ziren. Willonitzer eta bere lagunak hona lehen aldiz nola igo ote ziren ulertzen ez nuela, heldu ginen azkenean Esloveniako sabaira. Jakob Aljazek tontorrean paratutako dorre metalikoaren ondoan eserita, hiru buruko jaunak egun hartan bisitari asko zituen, agurrak, barreak, garagardo latek irekitzean egiten duten soinu hori... edari latak eta souvenirrak saltzen zituen gizon bat ere zegoen ton-

tor zabalera. 1906an Triglaven ipar paretan eskalatu zuten lehen aldiz König, Reinl eta Domeniggek, *Via Tedesca* deitzen den bidetik.

223 urte beranduago, abuztuaren bukaera zen Esloveniako jaunaren oinetan aurkitzen ginen egun hartan, pionero haiek bezain hunkituta. Triglavera igotzeko gutxienez bi egun behar zirela eta gaua tontorraren azpian dagoen Triglavski Dom aterpean pasa behar zela esan ziguten. Guk, handiusteok: "bah, 1850 metro desnibel, egingo diagu egun batean, beno badaezpada eramango diagu hortzeta-ko zepiloa, aterpean geratzen bagaituk edo..."

torrean, pentsa! Hemendik ederki zaintzen du Triglavek ia Eslovenia osoa, lainoek bere harrizko begiak estaltzen ez dizkioten egunetan behintzat, panorama izugarri zabala baitu bistan: Krn, Bavški Grintavec eta Kanin, Jóf Fuart, Montasio, Jalovec, Mangart, Škrlatica...

Aurretik geneukan jaitziera ez zen makala, ez horixe. Baina noski, hori jaitsi ondoren jakingo genuen. Horrela heldu genion hegomendebaldeko gandorrari, eta igoeran bezala kable eta burni ugari helduta, amildegien gainean erdi zintzilik igaroz, uff, azkenean terreno errazean jarri genituen oinak. Lehenengo malda gutxiko pedrera bat, gero nebero erraz batzuk, gero bidexka txiki bat... "beno ba, bazirudik zailena bukatu dela". Bai zera. Toki basati hartan, ez oso urrun, eraikuntza antzeko baten hondakinei begira ari ginela, erlajatuta ia, mendiaren hegi hura malkartsuagoa bihurtu zen, geroago amildegi. Eta paretetik jeitsi eta jeitsi, eta orain kablea eta gero burnizko eskalera, eta lan hauetan ari ginela, blaust! munduko eskalataile onenarekin gurutzatu ginen: patxada ederrean harkaitz arteko belar pittarrak jaten ari zen basautzak, bi hankabikooi indiferentziak begiratu eta hamaiketako egiten jarraitu zuen. Beldurtuko genuela uste izan genuen eta gutaz paso egin zunean, han ezer ez ginela sentitu nuen. Ikara eta mirespena. Geuk kendu behar izan genuen bere bidetik, amildegien gainean pauso prekariorik batzuk emanaz.

Nekea hasi zen agertzen, eta bailara abegikor eta babeslera iristeko gogoia. Artean kable eta burnidun tximinia, kanal eta desplomen bat gehiago gaintuta, Luknja lepora (1758 m) arratsaldeko lauretan heldu ginen. Zailtasunak amaituta, arratseko giro gozoan belar motzean atsedean hartuz, Trenta aldetik zetorren mendizale esloveniarrak atsegin batekin berrikerian aritu ginen han, eta ohartzeko, eguzkia paretak zeharka argitzen eta erliebeak markatzen hasi zen. Berak kontatu zigun jaisterakoan ikusitako eraikuntza hura gerra garaikoa zela. Esloveniako mendietan honelako eraikuntza gehiago dago, iragan gogorraren lekuko. Eta Triglaven ipar paretaz hitz egin zigun; "legendary wall" esaten zuen ingelesez. Esloveniar zehar segitu behar genuen bidaian galduta ez ibiltzeko, hitz batzuk ere erakutsi zizkigun, kaixo, agur, eskerrik asko. Vratak aparkalekura bidean, hamar orduko ibilaldi gogorraren osteko nekea generaman hanketan, eta egun borobila izan duzunean izaten den poz txiki hori barnean. Goizeko mendizale talde berriak jada ez zeuden, eta izarrak argitsuenak zeruan agertzen hasi zirenean, lehenengo bat, handiena, gero bi, hiru... bailara eta bere basoak itzalek eta isiltasunak inguratu zituzten.

3 LURRAZPITIK: Munduko arte-galeriarik ederrena

"Barruan, harri gainean erortzen diren tanten soinua bakarrik entzuten da, denbora markatuz. Baina urteak pasatzen dira eta ez da ia ezer aldatzen. Kanpoan nork daki zenbat aldiz jaitu, hazi eta desagertzen diren loreak, jaitu, ihartu eta erortzen dira zuhaitzen hostoak. Kobazuloen barruko harrizko loreak beti daude berdin, gaua eta eguna, urtaroak, urteak, mendeak bereizi gabe."

Kras eskualdea Mediterraneoaren amaiera eta barrualdeko lurren hasiera da: zelaiak baso ilun eta zabalekin nahasten hasten dira. Kobaz, zuloz eta sakanez, harkaitz eta gordelekuz betetako basoak... garai bateko bandoleroen gordelekuak. Erraza zen basoetan ezkatzea. Herritarrek, bitartean, herensuge eta mamuen istorioak kontatzen zituzten. XVII. mendean bukaerako kronika batean hau irakur daiteke: "eskualde hau sorginetan aberatsa da, oso basatia delako, apo eta beste zomorro pozointsuak hutsunee-tatik ezkutuaren arrastaka ibiltzen direlako".

Esloveniako lurpean 15.000 bat koba eta sima daude. Urak milaka urtetan bertan egindako lan bitxiak gaur ere sortzen digute harridura. Denak dauka bere esplikazio logikoa, baina itxuraz beti da harrigarria. Eta iluntasunak (ezetz dioena ez dela zintzoa esango nuke) beti sortzen digu halako urduritasun edo kezka txiki bat barru-barruan. Gizakia zein galduta sentitzen den ulertzeko, nahikoa da lurraren erriaietara bidaia txiki bat egitea. Postojnako haitzuloan, turista guztiak kobaren barruan daudela, argi guztiak itzaltzen dituzte bapatean eta zure ondoan dagoen lagunarengatik ez balitz, abandono eta galera sentsazioa erabatekoa izango litzateke. Iluntasun totala, erabatekoa, beldurgarria da. Are gehiago ur tantek bakarrik urratzen duten isiltasunak lagunduta bada.

"Skocjaneko kobak (Postojnatik 30 km-ra), amildegi bertikal ilunez bete eta austeroa, gizakia zein txikia den ulertarazten duen bitartean, Postojnako apaingarriz bete da, barrokoa, kristalezko

miniaturaz eta artelan ugariz betea. Planina, Ćrna, Pivka, Otoška, Magdalena dira beste haitzulo batzuk, gehienak Postojnako sistemaren parte.

Bitxikeria handienetakoa Cerknica aintzira intermitentea da. 20 km²-ko azalera dauka, eta urtean sei hilabetez lakua da, sei hilabetez zelaia. Strabon Aitzinako Greziako geografoak ezagutzen zuen jada. Gizakia behin baino gehiagotan saiatu da laku edo zelaia izatera behartzen, baina ez du lortu, eta joku arraro horrek, orain aintzira, orain belardia, segitzen du. Arraroena, dena den, zera da, aintzira denean arrainetan aberatsa dela.

Postojnatik 9 km-tara, 123 m-ko altuerako haitz batean dago Predjamako gaztelua. Zaldun errebelderen batentzako gaztelu ideala dirudi: bideetatik urrun, segurua, iritsiezina. Gainera atzealdetik irteera sekretu bat dauka lurrazpiko tuneletatik zehar. Erasmo Predjamakoa XV. mendearen bukaeran bizi izan zen. Gorteko mariskal bat hil zuenean, bere gordeleku segurura alde egin zuen. Enperadoreak bere gaitzakerien berri izan zuenean, Ravbar buruzagiari enkargatu zion Erasmo bizirik edo hilda harrapatzeko. Ravbarren ejerzitoko inork ez zuen Erasmoren gaztelua ezagutzen, baina hidalgua hain harroa omen zen bere pertsegidorea desafiatu zuela, bere etxera gonbidatuz. Eta Ravbar eta bere gizonak haitzaren oinera iritsi ziren beren kanoiekin. Beste irteerarik ikusten ez zenez, gaztelua setiatzen hasi ziren, bertakoak gosez hilko zituztelakoan. Baina setiatuak lurpeko tunelen bidez hornitzen ziren, eta lhauteri arratsalde batean kanpoan gosez eta hotzez zeuden soldaduei idi erregosi pusketak batzuk bota zizkieten. Soldaduek janaria irentsi baina ez zuten amore eman, setiatuen azken tranpa zelakoan. Aste batzuk geroago, Aste Santuan, arkume bat, gerezi freskoak eta arrain freskoa bota zizkietenean, itxaropena galtzen hasi ziren. Gazteluaren atzean, lur azpian, etengabe loratzen zen eta fruituak ematen zituen paradisu bat zegoela pentsatzen hasi ziren. Baina, jakina, "beti dago dirua onartzeko prest legokeen morroirik" esan zuen norbaitek. Erasmoren notarioa, setiatzaileei janaria oparitzera bidalia, izan zen sobornatu zutena. Azkenean kanoiak hil zuten zalduna. Honela bukatu zen matxinada, 1484an.

Postojnako haitzuloa aspalditik da ezaguna. 1818an, Habsburgoko Frantzisko laren bisitarako iluminazioa jartzen ari zirela, inguruetako biztanle batek, Luka Će'cek, kobaren jarraipena aurkitu zuen pasoa oztopatzen zuen arroka baten atzean. Orditik kobak ospe internazionala hartu zuen. Jendetza handiak biltzea ez da gaurko gauza: bisitariak erregistratzen direnetik 26 miloi pertsona izan dira bertan. Postojnako sistemak gutxira 20 km luze ditu; gaur 5,2 km bisita daitezke, trenez eta oinez.

2. Mundu Gerran, partisoen ekintza bitxi bat Postojnan gertatu zen: naziek hegazkinentzako erregaia koban gordea zeukaten, leku segurua gero ez zegoela pentsatuta. Beste sarrerak itxi eta sarrera nagusia zorrozki zaindu zuten. 1944eko apirilaren 23an, ordea, Postojnako lurrazpiaren ezagutzaile onenek zuzenduta, saboteadore talde batek, galeria ezberdinetatik, koban sartzea eta depositoa erretzea lortu zuen. Suteak zazpi egun iraun zuen. Ekin-tza nahiko sinplea izan zen: erregai upelak zulatu, harri bat kerose-notan bustitako zapi batean bildu, su eman eta upeletara bota. Bapatean sute izugarria sortu zen, eta ekintzaileetako bat inkon-sistente geratu zen segundu batzuek. Bere onera etorri zenean, bere kideak alde eginak ziren, eta bi egun eta bi gau aritu zen koban irteera bilatzen, erabateko iluntasunean. Trenbidea topatu eta hura itsuka segituz, eta patruila aleman bat sahiestuz, irteera topatzea lortu zuen azkenean.

1831an kobaren sakonean zomorro txiki bat aurkitu zuten, bertan aurkitutako lehenengo animalia. Berria egunkarietan ere azal-

du zen, hain toki ilunean bizitza ez zela posible uste baitzen. Gero-goko ikerketetan koban bizi diren 190 animalia espezie aurkitu dira, txikiak edo ia ikustezinak. Bitxiena "proteus anguinus" delakoa da, haragi koloreko sugandila antzeko batrazioa. Ez du begirik ez dituelako behar, ez du pigmenturik ez duelako behar ere, ez da mugitzen eta ia ez du jaten. Kras eslovenoan bakarrik bizi da. Urte luzeetan biologo askoren buruhaustea izan zen, ez baitzekiten nola sailkatu. Antzina, herensuge kumeak zirela uste zen: Postojnako kobaren lehenengo kronistak, Janez Vajkard Valvasorrek, kontatzen du nola behin baserritar batek hilik zegoen dragoi txiki bat erakutsi zion...

Koba guztietan bezala, Postojnan ere bizi omen zen herensuge beldurgarri bat, animaliak eta gaztetxoak irensten zituena. Gazte batek txekor baten larrua kare biziz bete eta kobaren aurrean uzteko ideia izan zuen arte. Herensugea, egarriz eta erredurez betea, lurrazpiko urez bete zen eta bertan hil zen. Bere agonian, urruneko herrietatik ere entzuten omen ziren bere orroak. Postojnako haitzuloaren historia giza imajinarioaren historia berezia ere bada. Eta honek, hasieran behintzat, beldurraren eragina zeukan. Gizakia egun argitako izakia baita; haitzuloaren barrura sartzea, beraz, ausartenentzat zen: oztopo naturalak, eta kulturalak, gainditzen zekitenentzat.

Valvasorrek honela deskribatu zuen koba: "...hain forma arraroak daude, txingurri pilak, sugeak eta beste animaliak, figura monstruosoak eta aurpegi desfiguratuak, mamuak eta antzeko gauzak ikustearen inpresioa duzula. Txoko, izkin, zutabe eta lur guztiak horretaz guztiaz beteta daude eta bat baino gehiago horrorez ikaritzen da. Nazka eta beldurra are handiagoak dira alde guztietatik pasabide, amildegi eta zulo ugari dagoelako. Laburtuz, irudi ikaragarri ilunpet-su bat, lumarekin deskribatu ezin dena". Laberinto amaitezinetan distantziaren zentzua nahasten da, hondoaren edo bukaeraren faltagatik, ezezagunagatik azken finean... ikaratu egiten da bat. Antortxa edo kandelaren suaren argi mugikorrek, gainera, iluntasunetik eta itzaletatik irudi fantastiko eta beldurgarriak sortzen zituen. Horregatik gerora Valvasorren errefentziak exageratutzat jo zituzten. Valvasor konbentzitua zegoen Postojnako koba arraroena eta beldurgarriena zela, eta horregatik, famatuena, eta horrela hasi zen bere izena zabaltzen.


XVIII. mendean mirespen fantastiko hori jakinmin arrazional bihurtzen hasi zen. Koba publiko arruntari ireki eta bertan festak antolatzen hasi ziren. 1822ko bere bisitaren ondoren, John Russel inglesak zera aipatu zuen: "barrunbe handienetako eta erregularrerenetako batean, lurra erabat laua da. Arrokkak eskaintzen dituen harrizko eserlekuez gain, egurrezko bankoak daude, eta zenbait kandelabro. Urtean behin, (...) herritarrak eta ingurukoak sala honetan elkartzeko... egunaren argituri legoa batera, Carniolako musika entzuten da erregeentzat eraikitakoak baino ederragoak diren aretoetan". 1825etik aurrera, kobaren festa egunean (Pentekoste astelehenean) haitzuloa handiki argitzen zuten. Festak egiteko erabiltzen zen aretoari "Kongresuen aretoa" deitzen zaio, 1965ean espeleologiako nazioarteko kongresua egin zelako bertan. Kontzertu eta dantzaldi ugari egin dira "Kontzertuen aretoa" deitzen den beste sala batean: 40 metroko altuera eta 3.000 m² ditu.

1872an ezarri zen trenbidea, eta 1884ean argi elektrikoa. Bisitari berezientzat, gainera, 16.000 kandela eta ehudaka farola pizten ziren. Geroago, iluminazio elektrikoa modernizatu da, bonbila halogenoak jarri... Lurpeko espazio zabalek mistikotasun pixka bat galdu zuten honela. Dena dago bistara, azken zokoraino. □



▲ Logarska Dolinako arana

ASER AGIRRESARBE ETA AITZOL GOIKOETXEA



Eta zuk, zergatik ez?

Hizkuntza

Hona bizpahiru hitz solte lur haietara joateko gogoa sortu zaionarentzat: *dober* dan ("egun ona izan dezazula"), *srečno* ("zorte ona izan"; "sreshno" ahoskatzen da), *hvala* ("eskerrik asko"; irakurri "juala"). Eslovenok ez du antzarik ez inglesa, ez frantsesa, ez italiarra, ez alemanarekin, edo gure inguruan arrunta den hizkuntzaren batekin. Baina, hara zer diren gauzak, hitzen bat edo bestek euskara gogorarazi zigun, *reka* ("erreka") adibidez. Inglesa jakinez orokorrean ez dago arazorik Eslovenian gustora ibiltzeko, jende askok baitaki.

Kras eskualdea eta Postojna

Postojnska Jama (*jama*="kobazuloa") bisitatzeko Lujbljanatik edo Triestetik irits daiteke. Oso bisitatu da, turismoarentzat prestatutako Europako haitzulo handiena omen. Hotel handi bat (Hotel Jama) eta kanping bat daude kobaren ondoan. Sarrera: 2200 tolar, hau da, 1650 pezeta edo 10 euro inguru (2001eko datua).

Triglav

Triglav igotzeko, Jesenice eta Kranjska Gora arteko erdibidean dagoen Mojstrana herrira heldu behar da. Hortik 11 kilometroko pista ona dago azken aparkalekura. Aparkalekutik bost minutura Aljavez Dom (*dom*="etxea") aterpea dago (1015 m), Jakob Aljaz izeneko apaiz, konpositore eta mendizalearen omenez honela deitua. Mojstranatik gertu, Dovje herrian, bere omenezko monumentua ikus daiteke, errepidearen ondoan, herri honetako parrokoa baitzen. Triglaven tontorrean Aljazek 1895ean larrialdietarako babesleku gisa eraikitako dorre moduko bat dago. Gaua Aljazev Domen eman behar da, parkingean lo egitea (furgonetan, kotxean edo lurlean berdin du) debekatua baitago.

Biharamunean bi aukera dituzte: egun berean Triglav igo eta jaitsi (gogorra, 9-10 ordu, 1850 metroko desnibela, eta terreno zaila) edo Triglavski Dom (2515 m) aterpe handian (250

ohe) gaua pasa. Bi bide nagusi daude tontorrera, eskalada bide ugarietz aparte: ekialdeko gandorra (*Prag* bidea, bide normala) eta mendebaldekoa (*Bamberg* bidea). Bietako bat ere ez da erraza, baina biak daude burni eta kableekin ekipatuta eta pinturaz markatuta. Prag bidea zertxobait errazagoa da, dena den. Pausu segurua eta bertigorik ez edukitzea komeni da. Udan ez da piolet edo kranpoirik behar, baina via ferratetarako ekipamendua ez dator gaizki. Eta kaskoa!

ESLOVENIA (Resumen)

ES en Eslovenia donde se unen los Alpes, el Mediterráneo y la cordillera Dinárica, donde se entremezclan el olor a mar y el aroma a resina de los abetos alpinos. Está poblado de extensos bosques y montañas salvajes habitadas por el oso, donde el terreno es intrincado y lleno de sorpresas. También es la tierra donde gobierna el antiguo dios Triglav, con sus tres cabezas: con la primera vigila el cielo, con la segunda la tierra y las montañas, y con la tercera el subsuelo. Siguiendo lo que ve desde esas tres cabezas, la autora describe cómo es la geografía y la vida en aquel pequeño y verde país; relata su ascensión a esa bella montaña de los Alpes Julianos; y muestra cómo es la región del Kras esloveno, con sus innumerables cuevas, simas, y también sus historias y leyendas.

Beste aukerak

• Eslovenia osoan, 7.000 kilometro mendibide balizatu daude. Alpe Julianoetan mendiko aterpe sare ona dago. Aterpeen artean ez dago distantzia luzerik, eta Alpeetako beste aterpeak bezalakoak dira, baina merkeagoak. Juliotar Alpeetako beste mendi batzuk:

- Triglaveko Parke Nazionalan: Škratica-Martuljek mendi multzoa (Esloveniako bigarren mendi garaiena dago bertan, 2740 m), Prisojnik-Razor (2601 m), Krn (2245 m)
- Italiarekin mugan: Jalovec (2643 m) eta Mangart (2677 m)
- Italiako Juliotar Alpeak (Tarvisioko mendiak: Montasio (2753 m), Jóf-Fuart (2666 m), Kanin (2587 m))

• Soča ibaia ur bizietako ihardueretarako aproposa eta oso ezaguna da.

• Neguan, eskia: mendiko eskiaz gainera, estazio mordsoka bat dago aukeran, horietatik Kranjska Gora da ezagunena.

Kartografia eta bibliografia

"Triglav" 1:25.000 Planinska zveza Slovenije.
"Juliske Alpe" 1:50.000 Planinska zveza Slovenije.

Hainbat gidaliburu daude. Honakoa oso ona da: "Alpi Giulie: cime, escursioni, vie ferrate" Eugen E. Hüsler, Edit. Frasnelli-Keitsch (Bolzano).

Informazio gehiago

<http://www.slovenia-tourism.si> (Esloveniako turismo-promoziorako orrialde ofiziala. Eskualde ezberdinei buruzko orrialdeetara loturak ditu), <http://www.sigov.si/tnp/> (Triglaveko Parke Nazionalaren orrialdea), <http://www.pzs.si> (Esloveniako mendizale-elkartearen orrialdea), <http://www.dolina-soce.com> (Soča ibaiaren bailarari buruzko orrialdea, ur bizietako aktibitateen inguruko informazioa, eski estazioei buruzkoa, etab.), <http://www.postojna-cave.com> (Postojna eta beste koba batzuen orrialdea).